

## Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urtarrilaren 30etik otsailaren 3rako astea

---

### **INGURU MAKROA:**

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


### **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

### **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: BPGd



### Datuaren analisisa

BPGd-aren aldez aurretiko datuen arabera, Euroguneak bere hazkunde-erritmoa handitu zuen 16ko 4Hn: hiruhileko % 0,5 eta urte arteko % 1,8. 2016ko hazkundearen batez bestekoa % 1,7koa izan da, 2015eko % 1,9aren ondoren. Ekonomia handien artean, hala Alemaniak nola Frantziak hazkunde-erritmo handiagoa izan zuten, eta Espainiak nota onari eutsi zion (% 0,7). Italiako datua oraindik ez da argitaratu.

### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik. Eurogunean Eurostatek argitaratzen du datua, eta Eurogunean ekoizten diren azken zerbitzu eta ondasunen baturaren bidez lortzen da.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI



### Datuaren analisia

Euroguneko inflazioaren urtarrileko datua % 1,8ra (u.a.) igo zen (azken 4 urteotako maximoa), eta prestatu gabeko elikagaiak (+% 3,3 u.) eta energia (+% 8,1 u.) izan ziren horren eragile nagusiak. Bestalde, azpikoaren osagaiak urte arteko % 0,9ko datua errepikatu zuen. Herrialdeei begiratuta, igoerarik handienak Frantzia (% 1,6 vs. aurreko % 0,8) eta batez ere Espainian eman dira (% 3 vs. % 1,4 abenduan). Batean zein bestean prestatu gabeko elikagaiak eta energia izan dira igoera horren erantzule nagusiak. Espero zena baino pixka bat okerragoa izan den datu bakarra Alemaniakoa izan da, baina, hala ere, aurreko hilekoa baino hobea izan da (% 1,9 vs. % 1,7).

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ISM



### Datuaren analisia

ISM manufacturen datua 56ko mailaraino hobetu zen, merkatuak espero zuenaren gainetik, aurreko datua beherantz berrikusi bazuten ere (54,7tik 54,5era). Osagaiak portaera ona izan zuten oro har, eta ordaindutako prezioek, ekoizpenak eta eskaera berriek gora egin zuten. Nolanahi ere, enpleguaren osagaiak izan zuen igoerarik handiena, 52,8tik 56raino igo baitzen. Bestalde, manufacturera ez den ISMa 56,5eko mailara heldu zen urtarrilean, aurreko hileko datua baio hamarren bat gutxiago (datu hori ere beherantz berrikusi zen nabarmen, 57,2tik 56,6ra).


### Adierazlearen azalpena

ISM Manufaktura-indizea konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



#### Datuaren analisia

Enpleguaren txosteneko datuen arabera, AEBetan 227.000 lanpostu berri sortu ziren urtarrilean, 180.000 lanpostu berriren aurreikuspenen oso gainetik. Irailetik eman den kopururik altuena izan da. Hala ere, langabezia-tasak % 4,7tik % 4,8ra egin zuen gora, pertsona gehiago sartu baitziren lan-merkatuan lan bila. Azkenik, orduko batez besteko soldataren datua moteldu egin zen, aurreko urte arteko % 2,8tik % 2,5era jaitsi ondoren.

#### Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.



# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
02/06	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
02/06	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	--
02/06	Alemania	MoM fabriken aginduak	% 0.5
02/06	Alemania	Markit PMI eraikuntza Alemania	--
02/06	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehekako merkataritza	--
02/06	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
02/06	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehekako merkataritza	--
02/06	Italia	Markit PMI Italiako xehekako merkataritza	--
02/06	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	16.6
02/07	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.3
02/07	Frantzia	Balantza komertziala	--
02/07	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$45.0b
02/07	Estatu Batuak	Kontsumitzailearen kreditua	\$20.000b
02/08	Japonia	BoP oinarrizko merkataritza balantza	¥751.1b
02/08	Frantzia	Bank of France enp sentimentua	102
02/08	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 2.8
02/08	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
02/08	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
02/08	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
02/09	Alemania	Balantza komertziala	20.5b
02/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	250k
02/09	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	--
02/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 1.0
02/10	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.7
02/10	Frantzia	MoM manufaktura-ekoizpena	-% 0.7
02/10	Italia	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 3.3
02/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£3500
02/10	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
02/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	% 3.2
02/10	Erresuma Batua	MoM manufaktura-ekoizpena	% 0.5
02/10	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
02/10	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	97.6
02/10	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
02/10	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--
02/10	Txina	Urte arteko esportazioak	% 3.0
02/10	Txina	Balantza komertziala	\$48.85b

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK

Gertaera eta erreferentzia makroekonomikoz betetako aste batean, itxierak negatibo samarrak izan ziren Europako merkatuetan, eta lauak AEBetan. Alde batetik, Fed, BoJ eta BoEk bilerak egin zituzten, eta haien politikari bere horretan eutsi zieten. Txinako Banku Zentralak ere bilera egin zuen, eta epe motzeko interes-tasak igotzean sorpresa eman zuen. Bestetik, Trumpek eta gehiengo musulmana duten 7 herrialdeetako herritarrentzat AEBetara sartzeko hark proposatutako mugapenek bereganatu zuten arreta guztia. Europan, Erresuma Batua EBtik ateratzeko prozesua abiarazteko Gobernuari baimena ematen dion legea onartu zuen parlamentu britainiarrak, eta beraz, Theresa Mayk martxoaren hasieran Lisboako Itunaren 50. artikulua aktibatzea espero da. Erreferentzia makroekonomikoei begiratuta, Europan datu positiboak argitaratu ziren; abenduan, langabezia-tasak behera egin zuen, eta 2016ko BPGd-a aurreikusitakoa baino gehiago handitu zen. Urtarrileko KPIaren datuak ere bereganatu zuen arreta, gora egin baitzuen, batez ere energiaren prezioa igotzearen ondorioz. AEBetan, datu nagusia ostiraleko enplegu-txostena izan zen; oro har positiboa zen, langile kopuru gero eta handiago batekin. Gainerako merkatuetan, itxiera negatiboa gorakorretan eta batez ere Japonian.

## ERRENTA FINKOAK:

Europako eta Amerikako bonuen errentagarritasunak behera egin du asteon. Epe luzeagoko zor periferikoak kontrako norabidea izan zuen, salmentak izan baitziren nagusi, eta ondorioz, tasek gora egin zuten. 10 urterako bonu alemanaren errentagarritasunak 5 op egin zuen behera, % 0,41eraino, eta espainiarrarenak, aldiz, % 1,68raino igo zen, eta arrisku-prima 127 op-raino. Kredituaren diferentzialek, berriz, pixka bat gora egin zuten.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkaturak, AEBetako Politika Komertzialaren Batzordeko presidentek eman zuen albiste nagusia, bere balioaren azpitik dagoen euroaz aprobetxatu izana leporatu baitzion Alemaniari. Euroak, azkenean, dolarraren aldean indarra irabazi zuen astearen amaieran eta 1,08\$/€ mailaraino iritsi zen; gauza bera liberaren aurrean: 0,86£/€. Lehengaiei dagokienez, LPEEK adostutako murrizketak gauzatzen ari direnez, petrolio gordinaren prezioak gora egin du, eta 56,46\$/upela mailaraino iritsi da (+% 2,92). Urreak ere balioa irabazi du aste honetan, eta 1.220\$/ontza mailaraino heldu da.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.391,26	-0,28	1,98
IBEX 35	9.462,70	-0,44	1,18
DJ EURO STOXX 50	3.273,11	-0,91	-0,53
DJ STOXX 50	3.008,31	-0,77	-0,07
FTSE	7.188,30	0,05	0,64
S&P 500	2.297,42	0,12	2,62
Dow Jones	20.071,46	-0,11	1,56
NASDAQ	5.666,77	0,11	5,27
NIKKEI 225	18.918,20	-2,82	-1,03
MSCI EMERGENTES (Lo)	49.660,38	-0,55	4,22
MEXBOL	47.225,10	-0,41	3,47
BOVESPA	64.953,93	-1,64	7,85
SHANGHAI	3.288,17	-0,60	1,19
Rusia Rts Moscú	1.190,40	-0,44	3,30

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,74	-0,08	0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,27	-0,02	0,01
AEB 2 URTE	1,20	-0,02	0,01
ALEMANIA 10 URTE	0,41	-0,05	0,20
ESPAINIA 10 URTE	1,68	0,10	0,30
AEB 10 URTE	2,46	-0,02	0,02
ALEMANIA 30 URTE	1,17	-0,02	0,23
ESPAINIA 30 URTE	3,01	0,10	0,39
AEB 30 URTE	3,09	0,03	0,03
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	71,51	1,31	-0,53
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	291,95	0,17	3,25

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,08	0,80	2,53
Yena / Euroa	121,52	-1,15	-1,39
Libera / Euroa	0,86	1,15	0,86

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2017ko % Ald
Petrolio (Brendt)	56,46	2,92	1,89
Urrea	1.220,20	2,43	5,90

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.